

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Benetako ezker

Jai dugu EAEko ezkertiarrok! Ustez ezker den PS(O)Ek, gure hoberena nahi ei duenez, “euskal gatazka” deritzonari nolabaiteko irtenbidea emateko edo, herriaren gehiengoak gura duen justizian eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako bakea bilatzeko, elkarrizketa-bidera jo beharrean, nahiago ohi du muturreko eskuin karpetobetonikoarekin lerratu eta errepresio basatien bidea erabili.

Ezker abertzale “ofizial”k, nolabait esatearren, ezin izango du datozen hauteskundeotan gutxieneko baldintzetan parte hartu.

Ez dugu kezkatu behar, ordea; benetako ezker etorri da-eta gu guztiok hondamenditik salbatzera: “Benetako ezker ezin da isildu ETaren indarkeriaren aurrean ANVk edo EHAKk egiten duten bezala (besteen indarkeriaren aurrean hobe bai, agidanez) eta ezin ditu, ezta ere, ideiak ilegalizatu, PSOEk egiten duen bezala” esan du Javier Madrazo sailburuak. Ageri denez, EA aipatu ere ez du egiten. Ez dakit gutxietsi nahi duelako edo, besterik gabe, ez duelako ezkertzat hartzen.

Bere burua kontsekuentziaren paradigma-tzat saldu nahi digun “benetako ezker”k, nahiz eta hitzez AHT, erraustegi eta abarren aurka dagoen, erakundeetan egotearen truke, ez du PNV bezalako eskuinarekin beharrezkoak diren itunak sinatzeko inolako arazorik izaten, baten bati harrigarri irudi balekioke ere.

Hiritar gehienek agian ezagutzen ez dituzten beste hainbat eremutan ere antzera



IÑIGO AZKONA

aritu ohi da –modu harrigarrian esan nahi dut– “benetako ezker”. Adibide gisa, Etxebizitza eta Gizarte Arazoetako Sailaren esku dagoen *Berdindu* zerbitzua aipatuko dut. PPren ekimenez (1) –hau ere bada harrigarria, gero!– onartu zuen Legebiltzarrak: “Gay-lesbianei eta haien familia eta lagunei informazio, arreta eta aholkularitza bulego bat sortzea”(2). Madrazo jaunak zuzentzen duen sailak, antolatzen duen zerbitzua, baina ez, inondik inora, Legebiltzarrak agindu bezala, baizik eta bere laguntxoak berton jarrita. Aho batez onartutako testuak honela zioen: “... Zerbitzu hori kudeatzeko gay eta lesbianen eskubideen alde lanean ari diren irabazi-asmorik gabeko elkarte sozial eta kolektiboen esku-hartzea bultzatuko da. Era berean, zerbitzu horren funtzioak, helburuak, tamaina, egitura eta ezaugarriak diseinatzekoan, elkarte haien iritzia jasoko dira”(2). Ez jatorrizko testua idatzi eta Legebiltzarrera helarazi zuen elkarteak, ez beste gehienak, ez ziren ez deitatuak ezta kontsultatuak ere izan.

“Dena herriarentzat, baina herria gabe”. Horixe izan omen da betidanik eskuinaren leloa. Dirudienez, ezkeraren gero eta gustukoago ere badena. ■

(1) PPk aurkeztu zuen testua EHGAM elkarrekin bainbat legealditan talde parlamentario guztiei bidalitako eskakizun-zerrendatik ia hitzez hitz hartua zen.

(2) 2000ko otsailaren 4ko Eusko Legebiltzarraren Bilkura Egunkaria.



‘Dena herriarentzat,
baina herria gabe’.

Horixe izan omen da

betidanik eskuinaren

leloa. Dirudienez,

ezkeraren gero eta

gustukoago ere badena



TXANDAN

Castillo Suarez

Toxikoak



Batzuetan, mundua autolaguntza liburutakoa bezalakoa izatea nahiko luke.

Liburua irakurri, eta arrangura guztiak norberak ondukoak direla sinetsi; edota guztiz kontrakoa ondorioztatu, eta gainerakoak sailkatzeko bila ari zen etiketa guztiak aurkitu, eta errua haiei bota. Maite ditu autolaguntza liburutako definizioak eta sailkapenak.

Nagusitoxikoak. Azkenaldian han eta hemen aipatzen dituzte. Liburuek diotenez, hiru motatako nagusi toxikodaude; hona: nartzisista, meritu guztiak beretako nahi dituenak, eta, beraz, itzala eman diezaioketenak suntsia-

razten saiatzen dena; psikopata, itxuraz atsegina dena, baina egiazki zitala dena, batik bat ahulenekin; eta para-

noidea, mesfidatia dena, eta bere menpe daudenekin guztiak modu negatiboan hartzen dituenak, eta eten-gabe fiskalizatzen ari dena haien lana.

Toxikoak. Berdin da nagusiak ala menpekoak izan. Berdin da ideiak lapurtzen dizkieten ala bera den lapurra. Batzuetan pertsona kaltegarriez inguratuta daudela sentitzen du, eta, besteetan, berriz, norbera dela suntsitzailea, eta, aldi berean, suntsikorra. Kalte egin diona bezain toxikoa sentitzen da bera ere; inkontrolatu bat, finean. ■